

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren IV. Topaketa ireki du

Bilera Iruñean egin da eta lankidetzaren deszentralizatuaren eta emaitzen kudeaketaren balioa aztertzea du xede

Jueves, 14 de abril de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakaria Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren IV. Topaketa irekitzeko ekitaldiaren buru izan da gaur goizean. Bilera apirilaren 14an eta 15ean egingo da Kondestablearen Jauregian, Iruñean. Bertan, Espainiako autonomia-erkidegoetako arduradun politiko eta teknikoek lankidetzaren deszentralizatuaren eta emaitzetara bideratutako kudeaketaren garrantzia aztertuko dute.



Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren topaketa. Ezkerretik eskuinera: García Malo, Sanz Lehendakaria, Soraya Rodríguez eta Andrés Carbonero.

Topaketaren irekitze-ekitaldian Soraya Rodríguez Ramos Nazioarteko Lankidetzako Estatu idazkaria eta María Isabel García Malo Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria ere egon dira. Sarrera Andrés Carbonero Martínez Nafarroako Gobernuko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbizuko zuzendariak egin du.

Espainiako autonomia-erkidegoek 2011n Espainiako garapenerako laguntza osoaren %11 ematen dute. Herralde hartzaileen arabera, ehuneko hori %30etik gorakoa da eskualde batzuetan, besteak beste, Erdialdeko Amerikan. Espainiako autonomia-erkidego guztiek garapenerako lankidetzaren lege autonomikoak eta funtsak esleitu eta kudeatzeko plan gidariak dituzte.

Espanian egiten den lankidetzaren formula deszentralizatua Koldo Unzeta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedradunak eta Hegoa Institutuko kideak eta José M^a

Fernández López de Turiso Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzaren Ministerioko Garapenerako Politiken Planifikazio eta Ebaluazio zuzendari nagusiak aztertuko dute.

Jesús Gamallo Aller Galiziako Xuntako Kanpo Arazoen eta EBrekiko Harremanen zuzendari nagusiak Eskualdeen Batzordeak "EBko garapen-politiken" Liburu Berdeari buruz emandako irizpenaren berrikuspena egingo du, Europako eskualdeek garapen-politiketan duten parte-hartzea aztertuz, eta Enrique del Olmo Administrazioaren eta Politika Publikoen Nazioarteko eta Iberoamerikako Fundaziokoak Espainiaren nazioarteko lankidetzaren esparruan diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen Errege Dekretua aztertuko du.

Gaien bigarren blokeak Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko emaitzetara bideratutako kudeaketa du oinarri. Hitzaldia Carola Calabuig Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzaren Ministerioko Garapenerako Politikak Planifikatzeko Arloko buruak emango du. Horrez gain, programan tailer sektorialak egingo dira bi gai horien inguruan.

Topaketa bihar amaituko da. García Malo kontseilariak parte-hartzaileak Nafarroako Jauregian hartuko ditu.



Autonomia-erkidegoen eta garapenerako lankidetzaren topaketa. Bileraren ikuspegi orokorra.

Garapenerako lankidetzaren Nafarroan

Foru Komunitateko garapenerako lankidetzaren Plan Gidaria du oinarri. Horren lehenengo edizioa 2007-2010 aldian egin da. II. Plan Gidaria idatzita dago, eta 2011 eta 2014 urteen bitartean egongo da indarrean.

Azken lau urteetan, 1.056 esku-hartze finantzatu dira, 80 milioi eurotik gorako gastua eginda. Horrek Nafarroako Gobernuak aldi horretan egindako gastuaren %0,7 esan nahi du. Kalkuluen arabera, laguntzetatik urtero bi milioi pertsonak onurak lortu dituzte; onuradunen erdiak emakumeak dira.

Funtsen %80 lehentasunezko 19 herrialdeetan erabili da, oinarrizko gizarte-beharrizanak asetzeari lotutako sektoreetan (%17 osasunean, %13 hezkuntzan, eta %5 ur-hornikuntzan). Nafarroak lankidetzarekin konpromiso gero eta handiagoa du garapen integraleko prozesuetan, batez ere landa-esparruan. Horren erakusgarri da funtsen %17 arlo "multisektorialean" inbertitu dela, hau da, gehienbat landa-garapenerako proiektuetan.